



Eraikin partekatuen oidea garatuz doa Europan gaildi. HARRICOP

Biarritzeko elkartasun eta gizarte ekonomiaren etxeak Hemen eta Etxalde elkarteak gomiatu zituen asteartean bizitegi partekatuez mintzatzeko. Etxaldek eraikinak merkatutik kentzeko eraman lana aipatu zuen; Hemenek bizilagun kooperatiben egiteko bi egitasmo aurkeztu zituen.

Espekulazioari nola buru egin

Maki Etxeleku Biarritz

Biarritzeko Elkartasun eta Gizarte Ekonomiaren etxeak antolatuta zuten hilabetean behin errepikatzen duen hitzaldia astearte honetan antolatuta zuten hilabetean behin errepikatzen duen hitzaldia astearte honetan antolatuta zuten hilabetean behin errepikatzen duen hitzaldia...

Bi egitura gomiatu zituen berriko etxeak kudeatu zerbitzuak: Hemen eta Etxalde elkarteak. Hemenek zenbait urte hauetan talde eta lan bat baditu abiatuak bizitegi partekatuen akuilatzekeo Ipar Euskal Herrian. Sostengatzen dituen bi bizitegi asmo aurkeztu zituen, hain zuzen, mintzaldia kari-

Baina bere xedea aurkezten lehen izan zen Etxalde elkarteak, lehenakari duen Beñat Etxebesten ahotik.

Duela hamar bat urte abiatu zuten Etxalde, eta, gaur egun, 49 bazkide ditu. Helburua, bizitegi baten bermatzea jendeari espekulaziotik ateraraziz eraikinak. Etxalde izenak Euskal Herrian duen erranahia zehaztuz abiatu zuten hitzaldia Etxebestek egitasmoaren espikatzekeo. «Etxalden bi hitz badira: etxe, eta alde, etxearen inguruan dena. Baserria da etxea, laborantzarako aterpeak eta lurak. Baina etxaldea da ere azkoekiko harremanak, bortuko jarduerak, ingurumenarekiko lotura. Balaunaldien arteko loturak ere badira etxaldean. Milaka urte iraun duen egitura zen, duela bi

mende gelditu zena kode zibilean jabego pribatua sartzearekin». Funtsezko aldaketa izan zen. Hori arte familia edo leinu bat ez zen etxaldearen jabe, baina familia etxaldearen erabilpena bazuen. «Familia balaunaldiz balaunaldi ondokoel uzten zien etxaldea. Nehorik ez zuen deus pagatzen. Mendeak iraun du, eta horri esker gaur egun oraino laborariak baditugu hemen; laborari bat plantatzen delarik, orain ere ez baita etxaldearen pagatzerik arrebana-anaiei». Transmisiorako irauteko molde horrek segitzen du zenbait eremutan: «Egote den lekuak dira euskal kulturarekin lotura dutenak, baina, azkenean, pobreen kulturari lotua da. Ez pagaraztea molde bakarra da unitate ekonomiko ba-

ten transmititzeko, bestela, desagertuko baita». Ipar Euskal Herrian historikoki aldaketa itsas hegiti etorri dela esplikatu du Etxebestek. «Klima gustukoa zuten jendeak hasi ziren etortzen, eta anal-arreba batzuk etxondoko analari etxaldearen saltzea galdetuz hasi eta diruaren banatzea; beren parte nahi zuten kode zibilak baimentzen baitzuten. Horrek, emekimeki, lurak jan ditu». Ontasun iraunkorra ez dadin gal sortu zen nolabait Etxalde elkarteak. Bazkideek egin hastapeneko diru ekarpenarekin, eraikin jabe bilakatu zen, barnean bizi diren jendeentzat iraunkor bilakatzeko. «Gu elkarteko bazkideak gara, baina ontasun horiek ez dira gureak. Hiltzen garen egune-

an ez da notarioarenera joaterik, ez da ondokotza zergarik... Etxalderena gelditzen da». Mailegu bidez erostea oraino posible den eremuan bi eraikin erosi zituen elkarteak, hots, Maulen. Mailegua bizitegiak alokatzen dituzten alokairuek dute pagatzen. «Badakigu mailegua pagatua ukanen dugularik eraikin horiek betiko ordainduak izanen direla, beraz, beste saleroste batetik kanpo egonen direla». Maulen, metro karratua 6 eurotan izanez egingarri da. Kostaldean ez litzateke posible Etxaldekoek egin hastapeneko ekarpen xumearekin. Matematikoki adierazi du zuberotarrak: «Metro karratu bat erosten delarik 1.000 eurotan, guti edo aski 20-30 urte behar dira pagatzeko; eta 1.000 euro ordain-



tzien da interesetan. Beraz, erraten delarik metro karratu batek 1.000 euro gosta dituela, egiazki, 2.000 euro gosta ditu. Kostaldean 6.000 euro delarik metro karratua, egiazki, 12.000 euro dira».

Betiko ziklo gaizto bat badela deitoratu du Etxaldekoak. Prezio hain goretan norbaitek bizitegi tipikoa bat erosi bazuen eta 30 urtez mailegua pagatu, zahartze-

1973ko aldaketa azpimarratu du, bestalde. Bankuei pagatu interes hori orduz gerotik airatzen dela munduan gaildi mundializazioa dela kausa. 1973 arte Frantziako Bankuari ordaintzen ziztatzeko maileguak «1.000 euroko interes horiek Parisera joaten ziren, eta berriz banatuak ziren; mundu hetsi bateko aberastasun baten barne ziren, Frantzia deitzen zena. 1973az gerotik arazo handia bada, sakelatik pagatu dugun dirua ez baita sekula itzultzen, Panama, Luxenburgoko, Kaiman uhartetara doa».

Gizarte desegina

Gizarteko jende anitzentzat egoera larri bilakatu dela jarraitu du Etxebestek. Bana beste erraten da bizitegiaren zama %29koa dela jendeen xahutzeetan. Lehen etxearen jabe egiten direnen artean %40-45koa izan daiteke kargaren zati hori. «Estres iraunkor bat bilakatzen da haientzat; zer-tarako? Jabe bilakatzeko, jakinez egun batez saldua izanen dela».

Alokatzaileentzat gauza bera da. Jabeak salduko duen egunean lekutzeko mehatxuarekin bizi da alokatzailea. Sistema ekonomikoak hartu bihurtzuneek mugikortasun bat eragiten diote jendeari, eta deus egonkorrik ez du bermatzen: bizitegiak maiz eskuz aldatzen, lanarekin gorabehera aldakorak. «Etxalderekin jabetzak irauten du, elkartearena baita; eraikina ez da sekula saldua, eta alokatzailea ez da sekula kanporatua. Bere etxea du. Seguritasun bat ekartzen dio, gauza handia da. Ez dugu igurikatzerik hautetsiek egin dezaten zerbait; egiten ahal dugu guhaurrek, eta indar kolektibo ikaragarria da».

Bana beste, Frantziaren, etxebizitza bat jabez aldatzen da hogei urterik. «Erran nahi du hogei urte guziz auzoz aldatzen dugula». Baserri eremuan, haatik, berrogei urteretarik da. Hirian, gizarte bizi funtsez aldatu du kinka horrek: «Auzoa hain bestetan da aldatzen, ez baikara ikustera joaten ere gehiago. Lotizamen-dura sartzen dena ez da joaten gehiago auzoaren



Etxalderekin jabetzak irauten du, elkartearena baita; eraikina ez da sekula saldua, eta alokatzailea ez da kanporatua»

«Hautetsiek zerbait egin dezaten ez dugu igurikatzerik; egiten ahal dugu guhaurrek, eta indar kolektibo ikaragarria da»

Beñat Etxebest

Etxalde elkartearen lehendakaria

arekin salduko du, ez baitzaio gehiago egokia, eta erosiko diona sistema berean sartuko da mailegu luze eginez. «Erran nahi du ontasunaren balioaren erdia bankuak badoala. Edozein gisaz, interesekin soberakina ateratzen dute bankuek. Baldin bada bat interesatua, bankuen mundua da».

rengana bere buruaren ezagutzaraztera, ez ditu gomiatzen. Loturak, delako oide horretarik mortzen da jendea. Zelula bako-reko gizartea bilakatzen ari gara». Ohartuak dira, Lapurdiko itsasbaterrean batez bestean zazpi urteretik auzo baten aldaketa gertatzen dela.